

Euskaraldiaren eragina
Irunen

2019ko ekaina



Aurkibidea

Laburpena	3.
1 Sarrera	12.
2 Helburuak eta metodologia	13.
3 Testuinguru soziodemografiko eta soziolinguistikoa	14.
3.1 Biztanleriaren bilakaera	14.
3.2 Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera	16.
3.3 Euskaraldiko izen-emateak, sexuaren, adinaren eta rolaren arabera.....	18.
3.4 Lagina, sexuaren, adinaren eta rolaren arabera	20.
3.5 Laginaren ezaugarri soziolinguistikook.....	21.
4 Euskaraldia ariketaren inguruan	24.
4.1 Nola izan duten Euskaraldiaren berri.....	24.
4.2 Zein izan den motibazio-maila.....	25.
4.3 Formazio-saioen inguruan.....	25.
4.4 Rolaren betetze-maila.....	27.
4.5 Zailtasunak	27.
4.6 Harremanak.....	28.
4.7 Antolakuntzari buruzko iritzia	29.
5 Hizkuntza-ohituretan izan den bilakaera	34.
5.1 Euskaraz bizitzea.....	34.
5.2 Lehen hitza.....	35.
5.3 Erdaraz egiten duten euskaldunei nola erantzun	36.
5.4 Elkarizketa elebidunak.....	37.
5.5 Zer egin euskaraz aitzeko zailtasunak edukiz gero	38.
5.6 Euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoiak.....	39.
5.7 Eguneroko bizitzan euskararen erabilerari ematen zaion garrantzia.....	40.
5.8 Erabileraren bilakaera egoera ezberdinetan	42.
5.9 Eraginaren inguruko iritzia	48.

Laburpena

Izen-emateen inguruan

3.608 lagunek izena eman dute Irunen, Euskaraldia ariketan parte hartzeko. 16 urtetik gora edukitzea eta euskara ulertzeko gai izatea izan dira ezinbesteko baldintzak, eta horiek kontuan hartuta, ondoriozta daiteke unibertso potentzialaren, hau da, **hirian parte hartzeko aukera zeukatenen %13 inguruk izena eman duela**. Izan ere, Eustat-en 2016ko datuen arabera, 27.777 ziren euskaldunak + ia euskaldunak Irunen (euskara ulertzeko, behintzat, gai zirenak).

Sexuari dagokionez, **emakumeen parte hartzea altuagoa izan da, izena emandakoen %62 izan baitira. Adin-tarteen arabera aztertuta, hutsune nagusia adinekoen artean egon da, 65 urtetik gorako multzoan, euskara ulertzeko gai direnen %6 baino gutxiago izan baita Euskaraldian izena eman duena**. Nabarmentzekoa da, era berean, parte hartzaile potentzialekiko **16-24 urtekoen multzoan izena eman dutenen pisua baxuagoa dela 25-39 eta 40-64 multzoetako baino**. Azken horien artean izan du Euskaraldiak arrakasta gehien, parte hartzeari dagokionez, beti ere (guraso gazteen parte-hartze handiaren ondorio izan daiteke).


Parte hartzea, adin-tarte bakoitzeko unibertso potentzialarekiko (%)



Iturria: Eustat, 2016. Siadeco, 2019

Izena emandakoen %71k Ahobizi rola hautatu du, eta %29k Belarriprest rola. Adin-tarteei rola arabera begiratuta, deigarria da Belarriprest gisa izena eman dutenen ehuneko altuagoa dela 16-24 urtekoen multzoan, 25-39koan baino, kontuan hartuta euskaldunen pisu erlatiboa handiagoa dela gazteen multzoan. Edonola ere, **Ahobizien ehuneko altuena duen multzoa 25-39 urte artekoena da. Belarripresten ehuneko altuena eduki duena, aldiz, 65 urtetik gorakoena**.

Hautatutako rola, adinaren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2019

Ikerketako laginaren inguruan

Irungo Euskaraldian izena eman duen hiritar-taldearen ezaugarri nagusiak agerian gelditzen dira ikerketarako erabilitako laginean ere. **Sexuari eta adinari dagokionez, azpimarratzekoak dira emakumeen (%68) eta adin ertainekoan (erdia baino gehiago, 30-50 urtekoak) pisu handia.** Rolari dagokionez, Ahobiziena (%82).

Halaber, **ondoriozta daiteke, unibertso potentzialari dagozkion datuekin alderatuta, etxean behintzat euskararen erabilera nahikoa errotuta daukatenen pisua handiagoa dela Euskaraldiko parte hartzaileen artean.** Horien artean, lehen hizkuntza eta batez ere, etxeko hizkuntza euskara dutenen ehunekoa altuagoa delako.

Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza:euskara (%)




HPS, 2016. Siadeco, 2019

Euskaraldia ariketaren inguruan

Parte hartzaile askok euskara etxetik zekarten, beraz. Eta motibazio aldetik, 10etik 8k baino gehiagok motibazio handia edo oso handia zeukan, gainera, Euskaraldia ariketarako. Euskaraldia pasata, parte hartzaileen **%70ek** baieztatu du zegokion rola, neurri handi batean behintzat, bete duela (%18k erabat).

Rola betetzeko **zailtasunen artean, solaskideen identifikazio falta (txapa zeraman jende gutxi) nabarmendu du inkestaturen %44,5ek.** Ingurukoen informazio falta (%18) eta Euskaraldian parte hartu ez dutenen jarrera desegokia ere nabarmendu dituzte (%21).

Zailtasun nagusiak (%)




Iturria: Siadeco, 2019

Hizkuntza-ohituretan izandako bilakaera

Aldaketa txikiak antzematen dira hizkuntza-ohituretan, Euskaraldiaren aurrekoak eta hiru hilabete beranduagoak konparatuz. Orokorrean, parte hartzaileen **%26,3k** adierazi du lehen baino neurri handiagoan **bizi dela euskaraz**; %12,3k, aldiz, txikiagoan. Saldoa positiboa da, beraz, %14koa. Dena den, gehiengoak, %61,4k, berdin jarraitzen duela baieztatu du (Euskaraz biziz, edo ez, lehenengo ohitura berdinekin).


Bilakaera: zein neurritan esango zenuke euskaraz bizi zarela (%)



Iturria: Siadeco, 2019

Euskararen erabileraren hazkundera zein egoeratan eman den aztertuta dator segidan. **Ezezagunekin eman da hazkunderik handiena, parte hartzaileen %35,8k egiten baitu lehen baino gehiago euskaraz, eta %14,2k gutxiago (%21eko saldoa). Eguneroko edo ohiko harremanei dagokienez, lagunartean eman da hazkunderik handiena: %26,3k egiten du gehiago euskaraz, eta %14,3k gutxiago (%12ko saldoa).**


Euskararen erabilera egoera ezberdinetan(%)



Iturria: Siadeco, 2019

Edonola ere, Euskaraldia bukatu bezain pronto pasatako galdetegia ere kontuan hartuta, bigarrenetik hirugarrenera jaitsiera handiena eduki duena ere bada lagunarteko ohitura. %54,9ra heldu da lagunartean beti edo gehienetan euskaraz egiten zutenen portzentajea, Euskaraldian zehar, baina %39,3ra jaitsi da hiru hilabete beranduago. Denboran zenbateraino eusten dion ikusi behar, beraz. Familiako eta lantokiko ohiturek ez dute horrenbesteko hazkunderik izan Euskaraldiarekin, baina gutxiago jaitsi dira ondoren.


Euskararen erabilera egoera ezberdinetan(%)



Iturria: Siadeco, 2019

Lagunarteena da hobetzeko tarte gehien zeukana, hain zuzen ere, eguneroko harremanetako hiru multzo horien artean: familia, lagunartea eta lantokia. Izan ere, inkestaturen %64,3k adierazi du bere lagunartean gehienak direla euskaldunak. Aldiz, Euskaraldiaren aurretik, %32,1ek soilik egiten zuen beti edo gehienetan euskaraz lagunartean. %39,3ra igo da portzentaje hori Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera.

Ezagutzaren eta erabileraren arteko alderaketa (%)




Iturria: Siadeco, 2019

“Familian”, “Lagunartean” eta “Lantokian” aukerak Inkesta Soziolinguistikoko datuekin alderatuta (2.gune soziolinguistikokoekin: euskaldunak %20-%49 artean), badirudi familian eta lantokian euskaraz aritzeko ohitura handiagoa dela Euskaraldiko parte hartzaileen artean, unibertsoan baino. Lagunartean diferentzia txikia da, Euskaraldiaren aurretik, behintzat.

Horrek adierazten du, **parte hartzaileen artean etxean euskaraz erabiltzea nahikoa zabaldua badago ere, lagunartean euskara gutxiago erabiltzen dela, oro har**. Alde horretatik, Euskaraldiaren eragina nabarmentzekoa da.


Beti edo gehienetan euskaraz egoera ezberdinetan (%)



Iturria: HPS, 2016. Siadeco, 2019

Gertuko harremanez aparte, ezezagunekin euskaraz aritzeko ohituran eman den hazkundera lotuta dago lehen hitza euskaraz egiteko ohiturari dagokionez gertatu denarekin. Izan ere, hiru hilabete pasata, **parte hartzaileen %30,5ek Euskaraldia hasi aurretik baino gehiagotan egiten du lehen hitza euskaraz, ezezagunekin** (%10,1ek gutxiago).


Bilakaera: ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiten al duzu? (%)



Iturria: Siadeco, 2019

Euskaraz hitz egin eta solaskidearekin elkar ulertzeko zailtasunak edukiz gero, parte hartzaileen %29,2 gaztelaniara pasatzen zen zuzenean, Euskaraldiaren aurretik. %14,9ra jaitsi da multzo hori, eta aldiz, gora egin du elkarrizketa elebidunak edukitzen dituztenen ehunekoak, %32,1etik %45,5era.

Euskaraz aritzean, solaskidearekin elkar ulertzeko zailtasunak baldin badituzu, zer egiten duzu? (%)




Iturria: Siadeco, 2019

Antolakuntzari buruzko iritziak

Parte hartzaileen %60k puntuazio ona edo oso ona eman dio Irungo Euskaraldiari. %8,1ek aldiz, txarra edo oso txarra. Euskaraldiak, orokorrean, balorazio hobea jaso du. %80tik gora izan dira puntuazio ona edo oso ona eman diotenak.

Antolakuntza aldetik, zein puntuazio emango zenioke Euskaraldiari? (%)



Iturria: Siadeco, 2019

Parte hartzaileen iruzkinak

Galdetegiak erantzun dituzten hiritarrek galdera ezberdinetan utzitako iritzi eta inpresio kualitatiboetatik ateratako ideia nagusiak bilduta datoz segidan:

1

Antolakuntzari buruz:

- Denetariko iritziak, onak eta txarrak. Hobetzeko puntuen artean, Euskaraldiari buruzko informazio gehiagoren eta orokorrean, ikusgarritasun handiago baten beharra, kalean batez ere.
- Parte-hartze handiagoaren beharra, bereziki Belarriprest gehiago erakartzeko ahalegin berezi baten beharra.
- Hurrengo edizioetarako zenbait proposamen:
 - Iraupena luzatzea (edo txapak denbora gehiagoz eraman ahal izatea).
 - Hurrei ere parte hartzeko aukera ematea.
 - Rol bakarra egotea, bereizketarik ez egitea, ez baitira ondo ulertu.

2

Formazio-saioei buruz:

- Joandakoen artean, balorazio positiboa, orokorrean. Hurrengorako hobetzekoak: adibide eta baliabide praktikoa gehiago ematea, rola betetzeko zailtasunen aurrean, bereziki.
- Parte hartu ez dutenen arrazoi nagusiak: denbora falta eta ordutegietara egokitzeko ezintasuna.

3

Eraginari buruz:

- Euskaraldiaren eragina nabaritu dutenek, kontzientzia hartzeko eta lehen hitza euskaraz gehiagotan egiteko balio izan diela azpimarratu dute, batez ere. Lehen hitzarekin lotuta, erabileran ezezagunekin izan den bilakaera ere nabarmentzen da iruzkinetan.
- Eragin handirik nabaritu ez dutenek, lehenago ere euskaraz bizitzeko hautua egina zeukatela, edo Euskaraldia bukatuta euren ohituretara itzuli direla adierazi dute. Batzuek hasieran nabaritu dute aldaketa, baina denborarekin lehengo ohituretara itzuli dira.

1

Sarrera

“Euskaraldia-11 egun euskaraz” ekimenak Irun hirian izan duen eragina neurtzeko ikerketa burutu du Siadeco Ikerketa Elkartek, Irungo Udaleko Euskara arloaren enkarguz. Txosten honek lanaren emaitzak aurkezten ditu.

Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin da, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 400 udalerritan baino gehiagotan, erakunde publikoen eta euskalgintzako taldeen bultzadaz. Ariketa sozial kolektiboa izan da, herritarren hizkuntza-ohituretan eragiteko helburua izan duena.

11 egun horietan zehar, 16 urtetik gorako herritarrek Ahobizi edo Belarriprest rola betetzeko aukera izan dute. Ahobiziek ahal izan duten guztietan euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute, eta Belarriprestek, gutxienez euskaraz ulertzeko gai direnez, haiekin euskaraz aritzeko gonbidapena luzatu diete gainerakoei.

2

Helburuak eta metodologia

Teknika kuantitatiboen bidez, ekimenak Irunen izan duen eragina neurtzea izan da ikerketaren helburu nagusia. Horretarako, hiru galdetegi pasa zaizkie ariketan izena ematen duten irundar guztiei. Bestalde, teknika kualitatiboak ere erabili dira, galdera irekien bidez, ekimenaren inguruan sortu diren bizipen eta inpresioak biltzeko.

Galdetegiak e-postaz igorri zaizkie parte hartzaileei, eta modu telematikoan erantzuteko aukera izan dute. Azpimarratu beharra dago, beraz, lagineko hiritarrak ez direla ausaz aukeratu. Irungo Euskaraldian parte hartu duen edonori galdetegia erantzuteko aukera eman zaio, eta borondatezkoa izan da parte hartzea. Parte hartzaile baten erantzunak balekoak izateko, hiru galdetegiak erantzun behar izan ditu, aurreikusitako epeetan.

Lehenengo galdetegia ekimena hasi aurretik pasa zaie izena emandakoei, azaroak 23 baino egun batzuk lehenago, bigarrena abenduaren 3aren osteko 15 egunetan eta hirugarrena ekimena amaitu eta hiru hilabetera, 2019ko martxoan. Galdetegi ezberdinak egiteak une bakoitzean parte hartzaileen hizkuntza ohiturak nolakoak izan diren ezagutzeko eta ohitura horien bilakaeraren berri izateko aukera eman du.

3.608 lagunek izena eman dute 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra Irungo Euskaraldian parte hartzeko. Ariketaren inpaktua neurtzeko ikerketako hiru kontsultak (Euskaraldiaren aurretik, bukatu bezain pronto, eta hiru hilabete pasata) erantzun dituztenak 308 lagun izan dira azkenean, hortaz, akats-tartea %5,45ekoa da, %95,5eko konfiantza mailarako eta bariantza maximorako (P = Q= 0,5).

Izena emandakoen %71k hautatu du Ahobizi rola, eta %29k Belarriprest rola. Laginean, rolen arteko aldea handiagoa da (%82-%18).

1. Taula. Unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa

	Unibertsoa (Izen-emateak)		Lagina (Hiru kontsultak)	
	Kop.	%	Kop.	%
Ahobizi 	2.560	71	253	82
Belarriprest 	1.048	29	55	18
Guztira	3.608	100	308	100

Iturria: Siadeco, 2019


3

Testuinguru soziodemografiko eta soziolinguistikoa

3.1 Biztanleriaren bilakaera

Irungo biztanleriak gaina jo zuen krisi ekonomikoaren aurreko urteetan, 2007-2008an, 60.000 biztanleen muga gainditu baitzuen orduan. Hortik aurrera, biztanleria galduz joan da hiria, poliki. Gaur egun 59.500 biztanle inguru dauzka. Horien %51,3, emakumeak.


1. Grafikoa. Biztanleriaren bilakaera



Iturria: Eustat, 2018

Adin-tarteei erreparatuta, biztanleriaren zahartzea nabari da. Helduen multzo handienak (20-64 urte) bost puntu pasatxo galdu ditu 2001etik 2018ra, biztanlerian duen pisu erlatiboari dagokionez. Eta ia bost puntuko igoera izan du, hain zuzen ere, adinekoen multzoak (>65 urte). 0-19 urtekoen multzoaren pisua nahiko egonkortuta dago %18-%20 artean.


2. Grafikoa. Biztanleriaren bilakaera, adin-tarteen arabera (%)



Iturria: Eustat, 2018

Biztanleria jaioterriaren arabera aztertuz gero, agerian gelditzen da Gipuzkoan eta EAeko beste lurralde historikoetan jaiotakoaren pisua ia konstantea dela. EAetik kanpo jaiotakoaren artean, aldiz, joerak aldatu egin dira. 2001ean estatuko beste lurraldeetan jaiotakoaren pisua handia zen (%32), 60-70eko hamarkadetan jasotako estatu barneko migrazioaren eragina nabaria zen oraindik, baina ia hamar puntu galdu ditu 2018rako. Aldiz, denboratarte horretan hamar puntuko hazkundea izan du estatutik kanpo jaiotakoaren pisuak: %3,3koa besterik ez zen 2001ean eta %13koa, aldiz, 2018an.

3. Grafikoa. Biztanleria, jaioterriaren arabera (%)




Iturria: Eustat, 2018

3.2 Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera

Euskararen ezagutzak gora egin du Irunen, azken hamarkadetan. 2006tik 2011ra etenaldi bat izan zen, jaitsiera txiki batekin, baina 2016rako gora egin zuen berriro (irundarren %40,6 zen euskalduna, urte horretan). Etxeetan, hogei urte lehenago baino bi puntu altuagoa zen euskararen erabilera (%10,5), 2016an. Kaleko erabilerak, hogei urte lehenagoko maila berreskuratu zuen, aurreko neurketetan behera egin eta gero (%7,6).

4. Grafikoa. Euskara gaitasunaren, etxeko erabileraren eta kaleko erabileraren bilakaera (%)



Iturria: Eustat, Siadeco

Euskararen ezagutzari dagozkion azken datuak, 2016koak, adin-tarteen arabera aztertuta, agerian gelditzen da adin-tarte batetik bestera dagoen diferentzia handia. 20 urtetik beherako irundarren %80 baino gehiago euskalduna da. 30 urtera arte %60tik gora mantentzen da euskaldunen ehunekoa, baina hortik aurrera nabarmen jaisten da.

Biztanle gehien biltzen dituzten adin tartetean, 40-44 eta 45-49koetan, %30era ere ez da iristen euskaldunen, euskaraz hitz egiteko gai direnen ehunekoa. 60 urtetik gora, %60tik gorakoa da euskara ulertu ere egiten ez dutenen portzentajea.

2. Taula. Euskararen ezagutza adin-tarteen arabera

	Guztira		Euskaldunak (%)	Ia-euskaldunak (%)	Erdaldunak (%)
	Kop.	(%)			
2tik 4ra	1.671	3	81,9	14,3	3,8
5etik 9ra	3.026	5	86,5	9,8	3,7
10etik 14ra	2.977	5	87,4	9,3	3,3
15-19	2.693	5	83,5	8,7	7,8
20-24	2.653	5	69,5	11,4	19,0
25-29	2.790	5	61,0	10,9	28,2
30-34	3.664	6	45,4	20,0	34,6
35-39	4.746	8	35,9	25,6	38,5
40-44	5.196	9	29,7	31,2	39,0
45-49	4.801	8	26,5	29,4	44,0
50-54	4.415	8	23,9	28,4	47,7
55-59	4.053	7	22,3	24,8	52,8
60-64	3.614	6	19,0	19,5	61,5
65-69	3.422	6	20,4	18,6	61,0
70-74	2.799	5	20,0	18,3	61,7
>=75	5.795	10	20,8	12,9	66,2
Guztira	58.315	100	41	19,7	39,7

Iturria: Eustat, 2016

3.3 Euskaraldiko izen-emateak, sexuaren, adinaren eta rolaren arabera

Irungo Euskaraldiko izen-emate datuak sakonago aztertuta, agerian gelditzen da emakumezkoen parte hartzea handiagoa izan dela: izena emandakoen %62,2 da emakumezkoa. Adinari dagokionez, izena emandakoen erdia, ia, 40-64 adin-tartekoa da. Halaber, %30etik gertu dago 25-39 urte artekoena. Hortaz, txikia da gazteenen eta adinekoen multzoen pisu erlatiboa.

3. Taula. Izen-emateak sexuaren arabera

	Kop.	%
Emakumezkoak	2.244	62,2
Gizonezkoak	1.340	37,1
Ez binarioak	24	0,7
Guztira	3.608	100

Iturria: Siadeco, 2019

4. Taula. Izen-emateak adinaren arabera

	Kop.	%
16-24	548	15,2
25-39	1040	28,8
40-64	1774	49,2
65 baino gehiago	246	6,8
Guztira	3.608	100

Iturria: Siadeco, 2019

Unibertso potentzialarekin, hau da, adin-multzo bakoitzean dagoen euskaldun eta ia euskaldunen kopuruarekin alderatu daitezke izen-emate datuak, parte hartzaile posibleekiko arrakasta-maila aztertzeko. Parte hartzeko baldintzak gutxienez 16 urte edukitzea eta euskara ulertzeko gai izatea zirela kontuan hartuta, hirian izena emateko aukera zeukatenen %13 inguruk egin zuen. Izan ere, Eustat-en 2016ko datuen arabera, 27.777 ziren 16 urtetik gorako euskaldunak + ia euskaldunak Irunen (euskara ulertzeko, behintzat, gai zirenak).

40-64 urte artekoen multzoan izan du Euskaraldiak arrakasta gehien, adin-tarte horretako euskaldun eta ia euskaldunen %15,5ek izena eman baitu. 25-39 multzoak (%14,2) gazteenena gainditzen du (%11,8), baina parte-hartze baxuena 65 urtetik gorakoetan egon da (%5,6).

5. Grafikoa. Parte hartzea, adin-tarte bakoitzeko unibertso potentzialarekiko (%)



Iturria: Eustat, 2016. Siadeco, 2019


5. Taula. Izen-emateak, adin-tarte bakoitzeko euskaldun+ia euskaldunekiko

	16-24	25-39	40-64	65 baino gehiago	Guztira
Unibertso potentziala (Euskaldunak+ia euskaldunak) (Kop.)	4.631	7.317	11.464	4.365	27.777
Izen-emateak (Kop.)	548	1040	1774	246	3.608
Izen-emateak unibertso potentzialarekiko (%)	11,8	14,2	15,5	5,6	13,0

Iturria: Eustat, 2016. Siadeco, 2019


Irungo Euskaraldian izena emandakoek hautatutako rola sexuaren arabera alderatuz gero, bi puntu altuagoa da emakumeen artean Ahobizi rola hautatu dutenen ehunekoa. Adin-tarteei dagokienez, nabarmentzekoa da 25-39 tartean Ahobizien ehunekoa altuagoa dela 16-24 urtekoen artean baino.

6. Grafikoa. Hautatutako rola, sexuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019

7. Grafikoa. Hautatutako rola, adinaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019

3.4 Lagina, sexuaren, adinaren eta rolaren arabera

Ikerketarako baliatutako laginean, emakumeen pisua, izena emandakoen artean baino are handiagoa da (%68). Era berean, agerian gelditzen da, izen-emate datuetan bezala, 30-50 adin-tartekoen pisua, ikerketako laginaren erdia gainditzen baitute.

6. Taula. Lagina sexuaren arabera

	Kop.	%
Emakumezkoak	210	68,2
Gizonezkoak	96	31,2
Ez binarioak	2	0,6
Guztira	308	100

Iturria: Siadeco, 2019

7. Taula. Lagina adinaren arabera

	Kop.	%
16-30	61	19,8
31-40	81	26,3
41-50	85	27,6
51 baino gehiago	81	26,3
Guztira	308	100

Iturria: Siadeco, 2019

8. Taula. Euskaraldirako hautatutako rola

	Kop.	%
Ahobizi 	250	81,2
Belarriprest 	54	17,6
Zehaztu gabe	4	1,2
Guztira	308	100

Iturria: Siadeco, 2019

3.5 Laginaren ezaugarri soziolinguistikoak

Laginean parte hartu duten hiritarren erdiak adierazi du erraztasun berdina duela euskaraz eta erdaraz aritzeko. %35 hobeto moldatzen da erdaraz, eta %15 hobeto euskaraz. Etxean eta eskolan jasotako hizkuntzari dagokionez, lagineko hiritarren %32,2k euskara jaso du etxean, eta %28,5ek euskara eta gaztelania. Eskolan, erdia baino gehiago da euskaraz ikasi duena (%53,8) eta %37,4 gaztelaniaz soilik ikasi duena.

8. Grafikoa. Euskaraz aritzeko erraztasuna (%)



Iturria: Siadeco, 2019


9. Taula. Zein hizkuntza jaso duten etxean eta eskolan

	Etxean	Eskolan
Euskara	32,2	53,8
Euskara eta gaztelania	28,5	5,7
Gaztelania	38,1	37,4
Beste bat	1,2	3,1
Guztira	100	100

Iturria: Siadeco, 2019

Inkestan parte hartu dutenek etxean jaso duten hizkuntza, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak unibertso potentzialaren (16 urtetik gorako euskaldun + ia euskaldunak) lehen hizkuntzari buruz emandakoekin alderatuta, agerian gelditzen da etxean euskara eta batez ere, bi hizkuntzak jaso dituztenen pisua handiagoa dela laginean. Nabarmentzekoa da, beraz, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso dutenen pisu baxua, Euskaraldiko parte hartzaileen artean (%62 unibertso potentzialean, eta %39,3 laginean).


9. Grafikoa. Lehen hizkuntza (%)



Iturria: HPS, 2016. Siadeco, 2019

Etxeko erabileraren inguruan galdetutakoa ere alderagarria HPStik eskuratutako datuekin. Horien arabera, unibertso potentzialarekiko (16 urtetik gorako euskaldunak + ia euskaldunak) etxeko hizkuntza euskara dutenen pisua handiagoa da Euskaraldiko parte hartzaileen artean (inkestako dena edo ia dena euskaraz aukera kontuan hartuta, datuak alderagarriak izan daitezzen).

10. Grafikoa. Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza: euskara (%)




Iturria: HPS, 2016. Siadeco, 2019

Etxeoaz harago, inkesta erantzun dutenen %64,3k adierazi du bere lagunartean gehienak direla euskaraz egiteko gai. Lantokian, aldiz, lau puntu baxuagoa da ehuneko hori. Oro har, lagineko hiritarren artean, lagunartea euskaldunagoa da, gaitasunari dagokionez, lantokia baino (Bestelakoak dira erabilerari dagozkion datuak).

Edonola ere, lankide gehienak euskaldunak dituztela baieztatu dutenen ehunekoa ere altua da (%60,2). Parte hartzaileen ogibidearen inguruan galdetu ez baldin bada ere, hezkuntzan, osasunean edo bestelako lanpostu publikoetan ari direnen pisu handiago baten ondorio izan daitekeela interpreta daiteke, datuek erakusten baitute erabilera ere altua dela lantokian.

11. Grafikoa. Zenbatak dakiten euskaraz lantokian eta lagunartean (%)



Iturria: Siadeco, 2019

4

Euskaraldia ariketaren inguruan

4.1 Nola izan duten Euskaraldiaren berri

Lagineko hiritarren laurdena pasatxok lagunen edo senideen bitartez izan du Euskaraldiaren berri. Beste laurden batek, komunikabide orokorretan eta %17k lantokian. Gainerako aukeren pisua %10etik beherakoa da.

Jende gehiagok izan du Euskaraldiaren berri sare sozialetan (%9,4), tokiko komunikabideetan baino (%7,1) Kartelen, kaleko postuen, eskuorrien eta bestelako informazio euskarri fisikoen pisua oso txikia da.

12. Grafikoa. Nola izan duten Euskaraldiaren berri (%)




Iturria: Siadeco, 2019

4.2 Zein izan den motibazio-maila

Euskaraldiaren aurretik parte hartzaileek ariketarako zeukaten motibazio-mailari dagokionez, azpimarratzeko modukoa da 10etik 8 baino gehiago direla motibazio handia edo oso handia zeukatenak. Aldiz, %1,6 eskas ziren motibazio txikia edo oso txikia zeukatenak.

13. Grafikoa. Motibazio-maila (%)



Iturria: Siadeco, 2019

4.3 Formazio-saioen inguruan

Ahobizi eta Belarriprest roletan sakontzeko formazio-saioen berri izan du parte hartzaileen %70,3k, baina horietatik, %12,4k baino ez du saioetan parte hartu.

10. Taula. Formazio-saioen berri izan dute (%)

Bai	70,3	Parte hartu dute	12,4
		Ez dute parte hartu	87,6
Ez	29,7		
Guztira	100		

Iturria: Siadeco, 2019

Saioetan parte hartu ez dutenei arrazoen inguruan galdetuta, denbora falta edo ordutegietara egokitzeko ezintasuna izan dira errepikatuenak. Dena den, rola eta eginbeharrak argi zeuzkalako, edo beharrezkoa iruditu ez zaiolako parte hartu ez duenik ere bada:

"Denborarik ez"

"Imposibilidad por horario laboral"

"Ordutegiak zirela eta"

"Falta de tiempo"

"Por los horarios me ha sido difícil acudir a las actividades, aunque me hubiese gustado"

"Lana, euskara, familia eta aisialdiaren kontziliazioa zaila delako"

"Ez zitzaidalako beharrezkoa iruditu"

"Hernaniko formazio-saioan parte hartu dut eta ez Irungoan"

"Argi nuelako zer zen egin behar nuena"

"Bizi osoa daramagu Ahobizi praktikatzan eta badakigu nola egin..."

"Ezagun batek laburtu zidan zer esaten zuten gutxi gora-behera (bera egon da) eta ordu t'erdia askotxo iruditu zitzaidan horretarako"

"Ondo ulertu nuelako eta ez nuelako horrenbesteko jakinminik"

Parte hartu dutenen artean, saioen inguruko balorazio gehienak positiboak izan dira. Hobetzeko arloen artean, adibide eta baliabide praktiko gehiagoren beharra azpimarratu dute:

"Txukunak eta aberasgarriak iruditu zaizkit"

"Baliabide, eredu, role-playing gehiago"

"Buena y necesaria. Motivadora"

"Ez da izan nik espero nuena. Ahobizi rolean nola jokatu esan digute, baina ez zer egin aurrekoak/inguruak erdarara bultzatzen zaituenean..."

"Erabat beharrezkoa. Dinamiken bidez, jendearen ikuspuntua eta egoera jakiten da"

"Irungo Euskaraldiko aurkezpenean eta baita AEKn egindako formakuntzan balorazio positiboa ateratzen dut. Galderak eta zalantzak ongi argituak izan ziren"

"Oso ona. Oso ondo azaldu zuten eta zenbait puntu argitzeko balio izan zitzaidan"

"Bikaina, oso ondo azaldu zuten dena"


"Oso onak. Gustura egon ginen eta bilatu nuena aurkitu nuen. Formatiboa eta hausnarkorra izan zen"

"Orokorrean baliogarria suertatu zitzaidan. Faltan bota nuen erantzun negatibo edo oldarkorren aurrean zein jarrera hartu behar dugun lantzea"

4.4 Rolaren betetze-maila

Formazio-saioetan parte hartu edo ez, lagineko hiritarren %70 inguruk maila handi batean bete du zegokion rola (Gutziz bete dutenak %18 dira). %22k erdi bidean kokatu du bere burua, eta %6 inguruk ez du zegokion rola ondo bete.

14. Grafikoa. Hautatutako rolaen betetze-maila, 1etik 5era (%)



Iturria: Siadeco, 2019

4.5 Zailtasunak

Euskaraldian zehar edukitako zailtasun nagusiei dagokienez, %44,5ek solaskideen identifikazio falta nabarmendu du, hau da, txapa gutxirekin topo egin duela hirian zehar, Euskaraldiko hamaika egunetan. Identifikatutako solaskideen eskasiaz gainera, inguruko ezjakintasuna edo informazio falta ere nabarmendu dute (%18). Jarrera desegokiei dagokienez, Euskaraldian parte hartu ez dutenena aipatu du parte hartzaileen %21ek.

15. Grafikoa. Zailtasun nagusiak (%)




Iturria: Siadeco, 2019

4.6 Harremanak

Parte hartzaileen artean ariketan zehar izandako harremanei dagokienez, gutxi izan dira esperientzia txarrak eduki dituztenak. %2,8 rol berdina bete dutenekin eta %5,5 beste rola bete dutenekin. Orokorrean, harremanak hobeak izan dira rol berdina bete dutenen artean: %58,9k harreman oso ona eduki du rol berdina bete dutenekin, %41,1ek beste rola bete dutenekin.

16. Grafikoa. Harremana beste parte hartzaileekin (%)




Iturria: Siadeco, 2019

4.7 Antolakuntzari buruzko iritzia

Euskaraldiaren antolakuntza baloratzeko eskatu zaie inkestaturei, 1etik 5era. 4 edo 5eko puntuazioa eman dio inkestan parte hartu dutenen %83k, Euskaraldia kanpainari, orokorrean. %60 izan da Irungo Euskaraldiari puntuazio hori eman diona. %31k 3koa eman dio Irungo Euskaraldiari, %6,1ek 2koa eta %2k 1ekoa. %1 pasatxo izan da Euskaraldiari, orokorrean, 1-2ko puntuazioa eman diona.

17. Grafikoa. Antolakuntza aldetik, zein puntuazio emango zenioke Euskaraldiari? (%)



Iturria: Eustat, 2018

Galdera horren inguruan bildutako iruzkinak agerian uzten dute denetarik iritziak, onak eta txarrak daudela. Hobetzeko puntuen artean, informazio eta ikusgarritasun falta errepikatu dira askotan, bereziki kaleko girotzeari begira.

"Jende askok ez du antolatutako ekintzen berri izan. Kalean kartel eta informazio falta"

"Ez delako informazio nahikoa egon hirian zehar. Lau haizetara zabaltzeko zerbaite dela uste dut, eta Irungo Euskaraldiari buruz ez dut informazio askorik jaso"

"Ez dakit zeintzuk izan diren arrazoiak (informazioa/publizitatea ongi ez iristea, jendearen ezjakintasuna...), baina nire inguruan jendea egon da Euskaraldia hasi eta gero parte hartzeko gogoia izan duena"

"Amaian antolatutako filmek oso onak izan dira baina kalean ez da ezer nabaritu. Nire ustez, kaleko jarduera falta izan da puntu beltzena"

"Kalean informazio gehiago eman beharko genukeela uste dut. Jendea hobeto informatu eta aldi berean parte hartzaile gehiago lortu. Belarriprestak faltan bota ditut"

"Irungo Euskaraldia uste dut ongi antolatua izan dela baina kalean txapa gehiago faltan bota ditut. Agian informazio gehiago falta izan da Euskaraldia hasi aurretik. Gainerakoan dena ongi joan da"

"Beranduegi egin dute bisibilizazioa Irunen, inguruko jende asko parte hartu gabe geratu da ez zutelako berririk Euskaraldiari buruz"

"Jende gutxi egon delako Euskaraldiak antolatutako ekintza batzuetan, eta informazio gutxi egon delako. Nik euskaltegitik jaso dut beharrezko informazio guztia"

"Desde el Ayuntamiento municipal creo que se ha hecho una buena difusión e información de la campaña"

"Ondo antolatuta zegoelako eta jaso dudan informazioa ona izan delako"

"Oso malgutasun handia izan da txapak lortzeko. Erraza izan da astean zehar zein asteburuetan goizez zein arratsalde. Formakuntzak ere, arratsaldetan jasotzeko aukera zegoen eta asteburuetan goizean"

"Jendea informatzen saiatu direlako. Irunen horrelako ekitaldiak ez dira errazak eta alde askotatik iritsi zait Euskaraldiko informazioa"

"Uste dut lan handia egin dela aurretik, herritarrak informatzeko eta parte hartzera animatzeko. Saltokietan eta ostalaritzan ere ikusi dut, sare sozialen bidez, lan hori ere egin dela. Alde horretatik ilusioa transmititzea lortu dela esango nuke"

"Dena hobetu daiteke, seguru. Baina egindako lana sobresaliente batekin saritu nahi dut"

"Uste baino jende gehiago ikusi dudalako parte hartzen Euskaraldian. Ederra iruditu zait".

"Argi geratu da Udala ez dela behar haina inplikatu, ez da informazio kanpaina sendo bat egin. Nire inguruko jende asko, euskaldun zein euskalduntze bidean, ez dute ahoz-ahokoan baizik jakin izan Euskaraldiari buruz Irunen"

"Beste hiri batzuetan konpromezu gehiago ikusi det, bai kalean, baita administrazioaren aldetik ere"

"Koordinazio falta instituzio eta herri-aktibazioarekin"

"Irungo Euskaraldiari dagokionez, nahiz eta ez dudan talde motorrean bertatik bertara parte hartu, sentazioa izan dut bi aldean arteko uztardura horretan zailtasunak edo arazoak izan direla, ez dela lortu beste toki batzuetan egon den sintonia hori"

Balorazioak gorabehera, inkesta erantzun duten gehien-gehienek berriro parte hartuko lukete Euskaraldian, hurrengo edizio batean (%98,7).

11. Taula. Hurrengo edizio batean parte hartuko zenuke?

	Kop	%
Bai	304	98,7
Ez	4	1,3

Iturria: Siadeco, 2019

Ondorengoak dira berriro parte hartuko luketela adierazi dutenen adierazpenetako batzuk:

"Ekimen interesgarria iruditzen zaidalako nahiz eta iraupen oso mugatukoa izan"

"Oso interesgarria iruditu zaidalako batez ere euskaraz gutxi hitz egiten dutenentzat. Aurrerapausua ikusi dut"

"Me ha parecido una forma curiosa de abrirme a interactuar en euskera con mi entorno"

"Porque me parece interesante y cuantas más veces se repita la campaña más gente irá participando"

"Betiere ikusiko banu bestelako neurriak hartzen direla eta ez dela batzuentzako kosmetika eta zurikeria tresna bilakatzen"

"Beharrezkoa ikusten dut euskararen alde gauzak egitea. Eta nik uste dut geroz eta jende gehiago animatuko dela"

"Euskara bultzatzeko ariketa esanguratsua iruditu zait eta beste behin eginda euskara-mailaren erabilera gure hirian bermatuko genuke eta euskara ez dakitenen artean bultzada bat suertatu daiteke"

"Ekintza egokia iruditzen zait euskararen erabilera bultzatzeko"

"Ezezagunekin euskaraz hitz egiteko aukera ematen dizulako"

"Egitasmo eraginkorra delako, eta ilusioa piztu duena. Antolakuntzan parte hartu dut lehenengo edizioan, baina ez dut uste bigarren batean hainbeste inplikatuko naizenik"

Ondorengoak dira, hurrengo edizio bati begira, gehien errepikatu diren proposamenak: iraupena luzatzea (edo txapak denbora gehiagoz eraman ahal izatea), haurrei ere parte hartzeko aukera ematea, edo rol bakarria egotea, bereizketarik egin gabe.

"Egun gehiago eta publizitate gehiago"

"Que dure más tiempo"

"Más tiempo, para ser capaces de crear hábitos"

"Nire ustez oso azkar pasa zen dena eta egingo nuke denbora gehiagorekin, gainera txaparik gabe geratu ginen etxean ezin ginelako joan jasotzeko orduetan lanarengatik"

"Agian denboran gehiago luzatzea ekimena eta, ahal den heinean, jende gehiagorengana iristea. Hau nola egin, horretan dago gakoa"

"11 egunekoa izan ordez, denbora luzeagoko jarduera izatea"

"Hilabete osorako zabaltzea"

"Ez nuke denbora toperik jarriko txapak gainean eramateko... Askok, epea amaitu ondoren ere, soinean generamatzen..."

"Egoki ikusten dut Euskaraldia bi urtetik behin egitea (Urtero egingo bagenu indarra galduko luke)"

"Argiago utzi beharko litzateke, Belarriprest izatea ez dela belarrimotz. Izan ere, Ahobizi denek ez dute euren funtzioa bete, eta euskara mailari lotuta zegoela pentsatu izan du jende askok"

"Denak Belarriprest edo Ahobizi izatea. Modalitate bat izatea"

"Los niños han estado muy participativos (al menos en la ikastola y eskolas que yo conozco), pero a ellos no se les entregaba txapas, muchos de ellos se han sentido mal, porque sentían que eran menos importantes"

"Umeen parte hartzea garrantzitsua da. Inguru erdaldunetan erdarara pasatzeko joera handia dute, baita euskaldunak euskaldunekin. Kontzientzia eta motibazioa pizteko baliagarria da Euskaraldia"

"Partehartzaileen adina jaistea, haur eta gazte asko Euskaraldiatik kanpo gelditu direlako"

"Euskaldunak identifikatzeko txapa iraunkorra"

"Hainbatek txapa ez du ginetik kendu Euskaraldiatik. Agian Txapaz gain beste moduak bilatu beharko genituzke euskaraz norekin hitz egin dezakezun jakiteko"

Nahiko orokorra izan da parte-hartze handiagoaren eta bereziki, Belarriprest gehiago erakartzeko ahalegina egin behararen inguruko iritzia. Promozio handiago baten alde egin dute parte hartzaile askok:

"Jende askok ez du Euskaraldiaren berririk izan eta ez zekiten zertan datzan, beraz hori konpontzeko bide ezberdinetatik informazio gehiago emango nuke"

"Una promoción mayor del evento. Ha habido mucha gente que no se ha dado cuenta de lo que tratábamos de hacer y conseguir"

"Jende gehiago (askoz ere gehiago) inplikatzeko urrats eraginkorrak aurreikusi eta gauzatzea (iruditzen baitzait parte-hartzea ez dela izan behar zuenaren neurrikoa, ezta hurrik eman ere)"

"Batez ere Belarriprestak lortzen. Euskara jakin eta erabiltzeko prest gaudenak asko gara baina euskara entzuteko eta ulertzen saiatzekoak askoz gehiago dira eta beren jokaera erosoegia da badakitelako beti erdarara joko dugula"

"Irunen ekintza gutxi egin dira Euskaraldiari begira. Jendearen partaidetza bultzatu behar da (ni barne) eta udalak inplikazio gehiago!!"

"Irungo agintarien aldetik inplikazio handiagoa egon beharko luke, hiritarrek eguneroko harremanetan, komunikabideetan, ... Interes handiagoa izan dezaten eskatu behar zaie"

"Ondo zehaztea zer den eta norentzat den, posturo handia ikusi dut txapa eramateagatik baina ezertxo ere euskaraz hitz egiteagatik. Kantitatea bilatu da kalitateari uko eginez"

"Belarriprest bila kanpaina, izen-ematea erraztuz eta euskaraz egitera animatuz"

"Berrito errepikatzen bada txapa gehiago eskuratu nahi nituzke ze berokia eta barruko arropan jarri eta kentzen egoten ginen denbora guztian"

"Hiriko denda eta zerbitzu guztien inplikazioa"

5


Hizkuntza-ohituretan izan den bilakaera

5.1 Euskaraz bizitzea

Euskaraldiaren eragina kuantifikatze aldera, ariketaren aurreko eta hiru hilabete beranduagoko hizkuntza-ohituretan izan diren aldaketak aztertu dira. Hasteko, zein neurritan bizi diren euskaraz galdetu zaie inkestaei, Euskaraldiaren aurretik, eta hiru hilabeteren ondoren.

Gehiago dira Euskaraldia pasa eta hiru hilabetera berdin jarraitzen dutenak (%61), baina hobera egin dutenak (%26,3) gehiago dira okerrera egin dutenak baino (%12,3). 1etik 5erako eskalan, inkesta erantzun duten gehienak 3-4 artean kokatzen dira. 38 lagun daude lehen kontsultan 3 erantzun eta azkenekoan 4 erantzun dutenak.

18. Grafikoa. Bilakaera: zein neurritan esango zenuke euskaraz bizi zarela (%)



Iturria: Siadeco, 2019

12. Taula. Bilakaera: Zein neurritan esango zenuke euskaraz bizi zarela? (%)


		Lehen kontsulta					GUZTIRA
		1	2	3	4	5	
Hirugarren kontsulta	Batere ez	1	4	0	0	0	5
	2	3	20	13	0	0	36
	3	0	15	56	11	0	82
	4	0	4	38	101	10	153
	Erabat	1	0	1	19	11	32
GUZTIRA		5	43	108	131	21	308

Iturria: Siadeco, 2019

5.2 Lehen hitza

Lehen hitzari dagokionez, Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera euskaraz gehiago egiten du elkarrizketatuen %30,5ek, eta %10ek gutxiago. "Batzueta" eta "askotan" aukeren artean kokatzen da inkesta erantzun dutenen gehiengo, baina 51 lagun daude Euskaraldia hasi aurretik "batzuetan" erantzun zutenak, eta hiru hilabete pasata lehen hitza euskaraz "askotan" egiten dutenak. 19 lagun daude, gainera, "inoiz ez" aukeratik "batzuetan" aukerara pasa direnak, hiru hilabeteren buruan.

19. Grafikoa. Bilakaera: ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiten al duzu? (%)



Iturria: Siadeco, 2019

13. Taula. Bilakaera: Ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiten al duzu? (%)


		Lehen kontsulta					GUZTIRA
		Inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti	9	
Hirugarren kontsulta	Inoiz ez	12	5	0	0	0	17
	Batzuetan	19	81	16	1	1	118
	Askotan	1	51	67	9	9	130
	Beti	0	5	18	20	20	43
GUZTIRA		32	142	101	30	30	308

Iturria: Siadeco, 2019

5.3 Erdaraz egiten duten euskaldunei nola erantzun

Euskaraz dakien norbaitek erdaraz egiten baldin badie, euskaraz erantzuten ote duten ere galdetu zaie inkestataiei. Horien %27,3 da euskaraz lehen baino gehiago erantzuten duena, eta %9,4 lehen baino gutxiago egiten duena. 48 lagun daude Euskaraldiaren aurretik “batzuetan” eta hiru hilabete pasata “askotan” euskaraz erantzuten dutenak, eta 33 “inoiz ez” euskaraz erantzutetik “batzuetan” euskaraz erantzutera pasa direnak. Hala ere, badaude beste 22 lagun Euskaraldiaren aurretik “askotan” eta hiru hilabete pasata “batzuetan” euskaraz erantzuten dutenak.

20. Grafikoa. Bilakaera: euskaraz dakien norbaitek erdaraz egiten baldin badizu, euskaraz erantzuten al diozu? (%)



Iturria: Siadeco, 2019

14. Taula. Bilakaera: Euskaraz dakien norbaitek erdaraz egiten baldin badizu, euskaraz erantzuten al diozu? (%)


		Lehen kontsulta			9	Guztira
		Inoiz ez	Batzuetan	Askotan		
Hirugarren kontsulta	Inoiz ez	20	6	1	0	27
	Batzuetan	33	111	22	3	169
	Askotan	3	48	61	0	112
GUZTIRA		56	165	84	3	308

Iturria: Siadeco, 2019

5.4 Elkarrizketa elebidunak

Elkarrizketa elebidunei dagokienez, lehen baino gutxiago edukitzen dituztenen ehunekoa altuagoa da (%16,2), lehen baino gehiago edukitzen dituztenena baino (%12). Dena den, jaitsiera handiena “askotan” aukeratik “batzuetan” aukerara eman da. Azpimarratzekoa da, gainera, 17 lagun daudela elkarrizketa elebidunak “inoiz ez” edukizetik “batzuetan” edukitzera pasa direnak.

21. Grafikoa. Bilakaera: elkarrizketa elebidunak edukitzen dituzu? (%)



Iturria: Siadeco, 2019

15. Taula. Bilakaera: elkarrizketa elebidunak edukitzen dituzu? (%)


		Lehen kontsulta			9	GUZTIRA
		Inoiz ez	Batzuetan	Askotan		
Hirugarren kontsulta	Inoiz ez	17	11	1	0	29
	Batzuetan	17	171	38	2	228
	Askotan	3	17	30	1	51
GUZTIRA		37	199	69	3	308

Iturria: Siadeco, 2019

5.5 Zer egin euskaraz aritzeko zailtasunak edukiz gero

Solaskidearekin euskaraz aritzean elkar ulertzeko zailtasunak daudenean, gehienek polikiago hitz egiten saiatu edo polikiago hitz egiteko eskatzen zuten, Euskaraldiaren aurretik. Hiru hilabete pasata, gehiago dira aukera hori egiten dutenak, baina hazkunde handiena elkarriketa elebidun bati ekiten dietenen artean gertatu da (%32,1etik %45,5era). Nabarmen behera egin du, aldiz, zuzenean erdarara pasatzen direnen ehunekoak (%29,2tik %14,9ra).

22. Grafikoa. Euskaraz aritzean, solaskidearekin elkar ulertzeko zailtasunak baldin badituzu, zer egiten duzu? (%)




Iturria: Siadeco, 2019

5.6 Euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoiak

Euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoen inguruan galdetuta, "Kalean gehienek erdaraz egiten dutelako" aukera izan da errepikatuen, bai lehen kontsultan, baita hirugarrenean ere. Edonola ere, aldaketa nabarmena, "Nire ingurua ez delako euskalduna" erantzunean eman da, sei puntuko hazkundera izan baitu. "Erosoagoa delako erdaraz egitea" eta "Ohiturarik ez dudalako" aukerek behera egin dute.

23. Grafikoa. Zergatik uste duzu ez duzula euskara gehiago erabiltzen? (%)




Iturria: Siadeco, 2019

5.7 Eguneroko bizitzan euskararen erabilerari ematen zaion garrantzia

Eguneroko bizitzan euskararen erabilerari ematen dioten garrantziari buruz galdetuta, inkestan parte hartu duten hiritarren %22k garrantzi gehiago ematen dio hiru hilabete pasata, Euskaraldia hasi aurretik baino. %13,3k, ordea, garrantzi gutxiago ematen dio.

24. Grafikoa. Zenbateko garrantzia ematen diozu euskararen erabilerari, zure eguneroko harremanetan? (%)



Iturria: Siadeco, 2019


16. Taula. Bilakaera: Zenbateko garrantzia ematen diozu euskararen erabilerari, zure eguneroko harremanetan? (%)

		Lehen kontsulta					9	GUZTIRA
		Batere ez	2	3	4	Erabatekoa		
Hirugarren kontsulta	Batere ez	2	2	1	0	0	0	5
	2	1	3	8	0	1	0	13
	3	0	6	27	10	1	2	46
	4	0	2	23	68	18	1	112
	Erabatekoa	0	1	2	33	96	0	132
GUZTIRA		3	14	61	111	116	3	308

Iturria: Siadeco, 2019

Euskaraldiaren aurretik, parte hartzaileen %69k garrantzi handia edo oso handia ematen zion euskararen erabilerari, eta %23k ertaina. Ariketa hasi aurretik, %84k motibazio-maila handia edo oso handia zeukan. Euskaraldia bukatu eta hiru hilabete beranduago, euskararen erabilerari garrantzi handia edo oso handia ematen diotenen ehunekoa ariketaren aurrekoa baino altuagoa da: %79.

25. Grafikoa. Euskararen erabilerari emandako garrantzian izandako aldaketa (%)



Iturria: Siadeco, 2019


5.8 Erabileraren bilakaera egoera ezberdinetan

Ahozko komunikazioarekin lotutako egoera ezberdinetan euskararen erabilerak zein bilakaera izan duen aztertuta dator jarraian. Hasteko, lehen galdetegiko (Euskaraldiaren aurretik) eta hirugarreneko (Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera) erantzunak kontuan hartuta, parte hartzaileek ezezagunekin edukitzen dituzten

elkarrizketetan eman da hazkunderik handiena, parte hartzaileen %35,8k egiten baitu lehen baino gehiago euskaraz, eta %14,2k gutxiago (%21eko saldoa).

Eguneroko edo ohiko harremanei dagokienez, lagunartean eman da hazkunderik handiena: Euskaraldia bukatu eta hiru hilabetera, parte hartzaileen %26,3k egiten du ariketaren aurretik baino gehiago euskaraz, eta %14,3k gutxiago (%12ko saldoa).

26. Grafikoa. Euskararen erabilera egoera ezberdinetan (%)



Iturria: Siadeco, 2019

17. Taula. Euskararen erabileraren bilakaera familiar

	Dena edo ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Lehen kontsulta			Ez dagokio	GUZTIRA
			Elebitan	Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz		
Hirugarren kontsulta	Dena edo ia dena erdaraz	24	4	1	3	2	35
	Gehiena erdaraz	9	31	6	0	1	47
	Elebitan	3	4	42	7	1	58
	Gehiena euskaraz	1	1	18	30	16	67
	Dena edo ia dena euskaraz	2	0	4	22	70	99
	Ez dagokio	0	1	0	0	0	2
GUZTIRA	39	41	71	62	90	5	308

Iturria: Siadeco, 2019

18. Taula. Euskararen erabileraren bilakaera lagunartean

	Dena edo ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Lehen kontsulta			Ez dagokio	GUZTIRA
			Elebitan	Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz		
Hirugarren kontsulta	Dena edo ia dena erdaraz	19	1	0	0	0	22
	Gehiena erdaraz	16	44	17	1	0	79
	Elebitan	6	22	47	9	0	85
	Gehiena euskaraz	0	4	24	36	16	80
	Dena edo ia dena euskaraz	0	0	3	6	31	41
	Ez dagokio	0	1	0	0	0	1
GUZTIRA	41	72	91	52	47	5	308

Iturria: Siadeco, 2019

19. Taula. Euskararen erabileraren bilakaera ikaslekuan

	Dena edo ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Lehen kontsulta			Ez dagokio	GUZTIRA
			Elebitan	Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz		
Hirugarren kontsulta	Dena edo ia dena erdaraz	2	1	1	0	1	5
	Gehiena erdaraz	3	5	3	1	2	16
	Elebitan	3	5	11	5	2	29
	Gehiena euskaraz	0	3	3	7	8	26
	Dena edo ia dena euskaraz	3	2	2	8	23	49
	Ez dagokio	6	5	7	8	22	135
GUZTIRA	17	21	27	29	58	156	308

Iturria: Siadeco, 2019

20. Taula. Euskararen erabileraren bilakaera lantokian

		Lehen kontsulta					Ez dagokio	GUZTIRA
		Dena edo ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Elebitan	Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz		
Hirugarren kontsulta	Dena edo ia dena erdaraz	10	7	1	0	2	1	21
	Gehiena erdaraz	8	21	8	0	0	1	38
	Elebitan	2	12	38	10	1	4	67
	Gehiena euskaraz	0	3	10	15	6	4	38
	Dena edo ia dena euskaraz	2	0	5	12	81	5	105
	Ez dagokio	2	3	1	2	1	30	39
GUZTIRA		24	46	63	39	91	45	308

Iturria: Siadeco, 2019

21. Taula. Euskararen erabileraren bilakaera beste egoeretan (Ezagunekin)

		Lehen kontsulta					GUZTIRA
		Dena edo ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Elebitan	Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz	
Hirugarren kontsulta	Dena edo ia dena erdaraz	12	2	0	0	0	14
	Gehiena erdaraz	12	36	13	1	0	62
	Elebitan	0	21	91	22	4	138
	Gehiena euskaraz	0	1	36	31	9	77
	Dena edo ia dena euskaraz	0	0	5	5	5	15
	Ez dagokio	0	2	0	0	0	2
GUZTIRA		24	62	145	59	18	308

Iturria: Siadeco, 2019

22. Taula. Euskararen erabileraren bilakaera beste egoeretan (Ezezagunekin)


		Lehen kontsulta					Ez dagokio	GUZTIRA
		Dena edo ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Elebitan	Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz		
Hirugarren kontsulta	Dena edo ia dena erdaraz	18	6	1	0	0	0	25
	Gehiena erdaraz	17	53	18	1	0	2	91
	Elebitan	1	48	92	8	1	2	152
	Gehiena euskaraz	1	4	19	10	1	0	35
	Dena edo ia dena euskaraz	0	0	1	0	0	0	1
	Ez dagokio	1	2	0	0	0	1	4
GUZTIRA		38	113	131	19	2	5	308

Iturria: Siadeco, 2019

Lagunarteko ohituretan antzematen da hazkunderik handiena, era berean, beti edo gehienetan euskaraz aritzeko ohitura dutenen ehunekoari erreparatuta: parte hartzaileen %32,1 zen Euskaraldiaren aurretik beti edo gehienetan euskaraz egiten zuena eta %54,9ra iritsi zen portzentajea Euskaraldian zehar. Hiru hilabete beranduago %39,3koa da, hasieran baino zazpi puntu altuagoa, jaitsiera handi baten ondoren, dena den.

Familian, eta batez ere, lantokian, igoera ez zen horren nabarmena izan ariketan zehar. Baina ondorengo jaitsiera ere leunagoa izan da. Denbora gehiago beharko litzateke aldaketen egonkortasuna frogatzeko, eta besteak beste, lagunartean beti edo gehienetan euskaraz aritzeko ohitura mantendu egiten den edo jaisten jarraitzen duen ikusteko.


27. Grafikoa. Beti edo gehienetan euskaraz, egoera ezberdinetan (%)



Iturria: Siadeco, 2019

Eguneroko ohiko komunikazio egoera horiez harago, bestelako egoeretan zein bilakaera izan den aztertuta dator jarraian. Bosna puntuko hazkundera izan da ezagunekin eta ezezagunekin egunerokoan beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen ehunekoetan. Ibilbidea ia berdina izan da, hoguei puntu baino gehiagoko hazkunde batekin, Euskaraldia ariketan zehar, eta jaitsiera nabarmen batekin, ondoren.

28. Grafikoa. Beti edo gehienetan euskaraz, bestelako egoeretan (%)




Iturria: Siadeco, 2019

“Familian”, “Lagunartean” eta “Lantokian” aukerak Inkesta Soziolinguistikoko datuekin alderatu daitezke, zehazki, 2.gune soziolinguistikoari dagozkionekin, bertan kokatzen baita Irun hiria (Euskaldunak %20-%49 artean). Inkesta horretan erabilitako lagina txikiegia da Iruni dagozkion datu adierazgarriak emateko, baina gune soziolinguistikoari buruzko datuekin alderatzeak hurbilketa modura balio dezake.

Ezaugarri soziolinguistikoaren atalean ikus daitekeen moduan, badirudi familian eta lantokian euskaraz aritzeko ohitura handiagoa dela ikerketako laginean, unibertsoan baino. Lagunartean diferentzia txikia da. Horrek adierazten du, parte hartzaileen artean etxean euskaraz erabiltzea nahikoa zabaldua badago ere, lagunartean euskara gutxiago erabiltzen dela, oro har.


29. Grafikoa. Beti edo gehienetan euskaraz, bestelako egoeretan (%)



Iturria: HPS, 2016. Siadeco, 2019

Hurrengo grafikoak beste datu banarekin alderatzen ditu hiru egoera horietako bakoitzeko erabilerari dagozkionak: familiaren kasuan euskara (edo euskara eta erdara) jaso dutenen ehunekoarekin, eta lantokiaren eta lagunartean kasuetan, lankide edo lagun gehienak euskaldunak dituztela baieztatu dutenen ehunekoarekin.

30. Grafikoa. Ezagutzaren eta erabileraren arteko alderaketa (%)



Iturria: Siadeco, 2019

5.9 Eraginaren inguruko iritziak

Euskaraldiak inkestaturen hizkuntza-ohituretan eraginik izan duen galdetuta ere denetariko iruzkinak bildu dira, baina multzokatuta, Euskaraldiaren eraginean sakontzeko aukera eman dezakete.

Euskararen erabileran eragin positiboa nabaritu dutenen artean, kontzientzia pizteko edo astintzeko balio izan diela adierazi dute, batez ere, lehen hitza euskaraz egiteko hartu duten ohitura azpimarratuz. Txapari eta ekimenari esker babesa sentitu dutela ere agerian gelditu da:

— **Kontzientzia**

"Apur bat, kontzientzia hartu eta lehen hitza beti euskaraz egiteko"

"Kontzientzia handiagoa euskara erabiltzeko beharraz"

"Kontzientzia hartu eta ohitura batzuk aldatzen ari naiz"

"Kontzientzia indartzeko"

— **Lehen hitza**

"Elkarriketak euskaraz gehiagotan hasten ditut"

"Errazago hasten naiz euskaraz hizketa batean"

"Euskaraldia eta gero beti saiatzen naiz lehen hitza euskaraz egiten"

"Lehen hitza euskaraz egiten dut lehen baino gehiago"

"Lehenengo hitza euskaraz egiten ausartzea batzuetan"

— **Babesa**

"Harrotasun, lasaitasun edo babes handiagoa sentitzea euskaraz egiterakoan. Irunen euskaldun izanda ez da babes handirik sentitzen, herritarrek berak nahiko erdaldunak baitira"

"Babesa eman dit zenbait kasutan euskarari eusteko euskaraz ulertu baina egiten ez dutenekin"

"Askoz gehiago ausartzen naiz kalean eta dendetan euskaraz aritzera. Sorpresa handia izaten da askotan aurrean euskaldun anitz daude, lehen jakin gabe!"

Aldaketa sakonagoei dagokienez, inguru hurbilean, familian batez ere, aldaketa txikiak izan direla dirudi. Senideen arteko ahozko harremanetan soilik ez, ohitura batzuetan ere bai, komunikabideen kontsumoari dagokionez, adibidez. Lagunarteetan eta lantokietan ere izan da aldaketarik. Bestalde, ezezagunekin komunikatzeko orduan ere batzuen ohituretan aldaketak izan dira, datu kuantitatiboek aurreratu duten bezala.

— **Familian, etxean**

"Nire bikotearekin eta ahizpekin euskaraz hitz egiten dut orain, normalean"

"Orain amarekin beti edo ia beti euskaraz egiten dut"

"Etxean berreskuratu dugu hizkuntza, eta familian ere. Gaur egun irratia euskaraz entzuten dut (berriak, kirolak eta abar)"

"Saiatzen naiz lehenengo hitza euskaraz izan dadin. ETB 1 eta Euskadi Irratia gehiago ikusi eta entzuten ditut"

"Batez ere, familian. Euskaraz hitz egiteko ohitura galdu genuen, baina Euskaraldiari esker berreskuratu egin dugula esango nuke"

— **Lagunartean**

"Lagunartean ugaritu egin da euskararen erabilera"

"Lagunekin euskaraz gehiago mintzatzea"

— **Lantokian**

"Lantegian euskaraz gehiago hitz egiten dut"

"Lantokian, indartu da euskararen erabilera"

— **Ezezagunekin**

"Ezezagunekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz hasiera batean, eta euskaraz dakiten ezagun batzuekin, lehen gazteleraz egiten nuen eta orain euskaraz egiten saiatzen naiz"

"Ezezagunekin euskaraz hasten naiz"

"Ezezagun baten aurrean euskaraz egiten dut maizago, lehen ia ez nuen egiten"

Aldaketak ez dira soilik lehen hitzari lotutakoak izan. Euskaraldiaren aurretik inoiz elkarrizketa elebidunik edukitzen ez zuten batzuk egingarriak direla konturatu dira.

"Baliteke erdaraz egiten didanari euskaraz erantzuteko indar handiagoa eman izatea. Orain pixkanaka elkarrizketa elebiduna posible dela sentitzen dut. Orain arte ez nuen neure burua hori egiteko gai ikusten"

"Elkarrizketa elebidunak edukitzen hasi naiz"

"Elkarrizketa elebidunak orain arte euskara-inposaketa edota errespetu falta bezala ikusten nituen. Orain lasaitasunez aritzen naiz elkarrizketa elebidun batean. Bestalde, ezezagunekin lehen hitza euskaraz egitea ez zitzaidan bururatzen, eta orain bai"

"Elkarrizketak elebitan egin daitezkeela konturatzeko"

Eragin handirik nabaritu ez dutenak ere badira, batzuek lehenago euskaraz aritzeko hautua egina zutelako, eta beste batzuek, Euskaraldia bukatuta euren ohituretarantz itzuli direlako. Hortaz, euren hizkuntza-ohiturek ez dute aldaketa handirik jasan.

"Ez gehiegi, jada lehenagotik ere, normalean euskaraz egin ohi baitut lehen hitza. Ez dut aurkitu inor euskaraz ez zekiela pentsatzen nuena baina Belarriprest edo Ahobizi txaparekin"

"Ez gehiegi, nire betiko ohiturekin jarraitu baitut. Euskaraz bizitzen ahal izan dudan guztietan, alegia"

"Egia esan ez. Normalean, euskaraz dakienarekin euskaraz aritzen naiz. Nire ohiturak ez dira asko aldatu"

"Egia esanda lehen bezala segitzen dut"

"Egia esteko ez dut gehiegi aldatu nire jarrera"

"Ohituretan ez du eraginik izan, euskara nire egunerokotasunean oso finkaturik dagoelako"

"Oso txikia, lehenago ohiturekin jarraitu dudala esango nuke, salbuespenak salbuespen"

Inkestatuen multzo batek hasieran nabaritu zuen Euskaraldia ariketaren inertzia, baina denborarekin baretu egin dela uste du.

"Egia esanda, uste baino gutxiago. Euskaraldiak iraun zuen bitartean bai, hoberako; baina gero ez du eraginik eduki"

"Euskaraldia garaian jendea inplikatu zen, 3 hilabete beranduago inor ez da honetaz gogoratzen eta ohiturak berdin darraite (gazteleeraz hitz egiten)"

"Ez gehiegi. Euskaraldiaren ondorengo egunetan, kasu batzuetan erdaratik euskarazko erlaziora pasa baginen ere, denborarekin berriro erdarara itzuli da. Nire ustez Irungo egoera euskararekiko oso kaxkarra da"

"Hasieran kontzientzia gehiago jartzen nuen ohiko erdarari ez jotzeko ezezagunekin, baina poliki poliki errazenera bueltatu naiz, hau da, erdara gehiago erabiltzera. Ahaztu egiten zait besteak ere jakin dezakeela euskara. Nire ohiko giroa oso erdalduna da"